

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIALANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kirol-erakundeei arlo fiskalari buruzko informazioa eta trebakuntza emango die Nafarroako Gobernuak

Gainera, malgutu egingo dira kirol ez-profesionalerako gaur egungo zerga-betekizunak

Asteazkena, 2017.eko otsailak 15

Nafarroako Gobernuak online bidez zein aurrez aurre eskainiko die kirol-klub eta –elkarteei arlo fiskalari buruzko informazioa eta trebakuntza. Aldi berean, malgutu egingo ditu ordainsari ekonomiko txikiei dagozkien zerga-betekizunetako batzuk.

Elkarrekin diseinatu dituzte neurri horiek Kultura, Kirol eta Gazteria departamentuak –NKGIren bitartez– eta Ogasuneko eta Finantza Politikako departamentuak; gaur goizean eman diote neurri horien berri Foru Gobernuari departamentuotako arduradunek.

Ekimenaren helburua da kirol-erakundeei arlo fiskalari buruzko informazioa eta laguntasuna eskatzeko egindako deialdiari erantzutea, bai eta elkarte eta klub horiei zerga-araudia betetzeko modua erraztea ere.

Informazioa eta trebakuntza

Adierazi bezala, informazioa eta trebakuntza emateko ekintzak hartzen ditu lehenengo neurri-ildoak.

Hain zuzen ere, informazio-gida bat prestatu da, arlo fiskalari buruzko oinarrizko informazioa jasotzen duena; datorren astelehenetik aurrera, otsailak 20, eskuragarri egongo da gida hori NKGIren webgunean.

Gainera, NKGIren menpeko Informazio-bulego bat irekiko da, kirol arloan espezializatua; bulego horrek gainerako departamentu guztien laguntza izango du beharrezkoak diren alderdietan eta, zehazki, Nafarroako Zerga Ogasunaren laguntza. Arlo fiskalean laguntza emateaz gain, boluntariotzari, babesgoari eta kirol-klubek eta -elkarrekin eskura ditzaketen diru-laguntzei buruzko informazioa ere eskainiko du.

Bulego horrek online zein aurrez aurre jardungo du. Horretarako, posta elektronikoko kontu bat gaituko da, eta kirol-erakundeei horra bideratu ahal izango dituzte beren kontsultak datorren astetik aurrera; eta, apiriletik aurrera, zerbitzu hori aurrez aurre ere emango da, arratsaldean, Ogasun Departamentuak goizez eskaintzen duen arreta-zerbitzua osatuz.

Azkenik, urtean zehar, gidan identifikatutako gaien buruzko trebakuntza-ikastaroak antolatzeko asmoa dago Nafarroako hainbat lekutan, kirol arloko eragileei zuzenduta.

Zerga-betekizunak betetzeko bideak erraztea

Gainera, Nafarroako Gobernuak malgotu egingo ditu kirol eta kultura arloekin lotutako jardueretarako gaur egungo zerga-betekizunak, beti ere irabazi asmorik gabeko erakundeek emandakoak baldin badira. Araudi berriarekin, urteko 3.600 eurotik beherako kontzeptu horiengatik lan-etekinek ez dute atxikipenik edo konturako sarrerarako obligaziorik izango, eta ez da egongo horiek 190 informazio-ereduan sartu beharrik.

PFEZren erregelamenduaren aldaketa gisa jasoko da neurri hori, eta bere helburua da ordaintzaileei zerga-araudia betetzen laguntzea, kontuan hartuta irabazi asmorik gabeko erakundeek ordaindutako kopuru txikiak direla eta erakunde horien helburua dela kirol- edota kultura-jarduerak sustatzea eta gauzatzea.

Malgotze horren berri ere emango da astelehenean argitaratuko den informazio-gidan.